



ATHLETIC CLUBEKO HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN JAKINARAZPENA

Bilbo, 2026ko apirilaren 18a.

Hauteskunde-Batzordea Bilboko Ibaigane jauregian (Mazarredo zumarkalea 23) bildu da, bere eskumenak baliatuz, eta hauteskunde-prozesua behar bezala garatzen dela zaintzeko ardura duen organoa den aldetik, Athletic Cluben Estatutuen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, Athletic Clubeko bazkideei honako hau jakinarazten die:

- Plataforma gaituan lortutako abalekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Erregelamenduaren 18-22 artikuluetan ezarritako baldintzak betez, Hauteskunde-Batzordeak baliozkotzat jo du Jon Uriarte Uranga jaunak presidente izateko eta Zuzendaritza-Batzordeko gainerako kideek aurkeztutako hautagaitza.
- Athletic Cluben Estatutuetako 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, hautagaitza bakarra badago, inolako bozketarik egin gabe aldarrikatuko da, eta Hauteskunde-Batzorde honek Athletic Clubeko presidentea eta Zuzendaritza-Batzordeko gainerako kideak izendatuko ditu aurkeztutako hautagaitza ofiziala.
- Athletic Cluben Estatutuen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 4. atalean ezarritakoaren arabera, eta baldintzak betetzen direnez, 2026ko apirilaren 18a izango da kargua hartzeko eguna.
- Erantsita doa HAUTESKUNDE-BATZORDEAK ATHLETIC CLUBEKO ESTATUTU SOZIALEN 72. ARTIKULUAN AGINDUTAKOAREN ARABERA ALDARRIKATZEN DUEN EDIKTUA

Hauteskunde-Batzordea